

noaua

Manu Urbietta: “Betidanik izan dut eskulturarekiko zaletasuna”

Udajolasen izen-ematea ostiral honetan amaituko da IX. Dantza Eguna oparoa eta ikusgarria izan da



**Maribel Jorge:
“Adin guztietako erabiltzaileekin gabiltza, baina lehentasuna adinekoek dute”**



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Osasun neurri guztiekin
zuen zerbitzura

-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, EREÑOTZU-HERNANI
Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867



Ate Irekiak

HARTU
HITZORDUA!!!



Maiatzak 12



Erdi Maila: 16:00 - 17:30

Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 15



Erdi Maila: 10:00 - 11:30

Goi Maila: 11:30 - 13:00



943 364600



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

“Ombuaren Itzala” proiektua aurkeztu zuten Potxoenean

Pello Mari Otaño bertsolariaren inguruko film bat egin nahi dute, eta auzolanean gauzatu nahi dutenez, herriz herri ari dira egitasmoa aurkezten. Apirilaren 20an hurbildu zen Patxi Bisquert aktorea Potxoenean, filmari buruzko hainbat xehetasun eskaintzeko.

Pello Mari Otaño bertsolariaren bizi-modua, egokitu zitzaion garai historikoa eta haren lanak bildu nahi dituzte ‘Ombuaren itzala’ filmean. Patxi Bisquert aktorea da ekimen honen bultzatzaile nagusia. Laguntzaile ditu proiektua aurrera eraman ahal izateko Zizurkilgo Teodoro Hernandorena Kultur Taldeko kideak ere. Auzolanean lortu nahi dute filma egiteko beharrezkoa den dirua, herrigintzan oinarritutakoa baita filmaren ekimena.



Pello Mari Otaño bertsolariaren bizimodua, egokitu zitzaion garai historikoa eta haren lanak bildu nahi dituzte ‘Ombuaren itzala’ filmean.

Nola lagundu?

“Pello Mari Otaño auzolana” izena duen webgunea jarri dute martxan, eta leihati-

la bat ipini dute bertan, sarrera bat aldeztu aurretik erosi ahal izateko: pellomariotanoauzolana.eus

Laburrean

602,41eko intzidentziarekin, eremu gorrian

Apirilaren 21ean gainditu zuen Usurbilek 100.000 biztanleko 14 eguneko 400eko intzidentzia. Eremu gorrian da ordutik. Etenik gabe gorantz egin ostean, 602,41eko intzidentzia zuen Covid-19ak aste hasieran Usurbilen.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

Errenta aitortpena egiteko garaia

Autolikidazio proposamenak onartu, aitortpena internet bidez aurkeztu edo errenta mekanizatu bidez tramitatzeko epea zabalik da. Errenta aitortpena euskaraz bideratzeko deia egina du EMAk. Informazio gehiagorako: 943 113 000 / gipuzkoa.eus

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!




Luis Aranalde

Berriro ere dezepzio galanta Erromako Fedearen Dotrinaren Kongregaziotik iritsi zaigun ordena. Sexu bereko bikoteen integrazioa Elizan ezinezkoa da praktikan. Vatikanok ez du onartzen bikote homosexualen ezkontza bedeinkatzea, "Jainkoak ezin baitu bekatua bedeinkatu" (sic). Beraz, bikote homosexual baten maitasuna bekatu da.

Vatikanoko taliban hauek ez dute irakurri biblian idatzita dagoen esaldirik ederretariko bat: "Jainkoa maitasuna da, eta maitasunean dirauena, Jainkoarekin bat eginik dago, eta Jainkoa harekin", 1Jn. 4,6. Elkar maite duten homosexual hauek Jainkoarengan baldin badaude, bedeinkazio bat mereziko dute, ezta? Munduaren aurrean erridikulua egiteaz gain, kristautasunaren irudi negargarri bat ematen dute. Ordenu honek ez dauka zerikusirik ebanjelioarekin.

Ladaria kardinala da idazki horren arduraduna. Bere ustez bikote homosexualen ezkontza ez dator bat Jainkoak ezkontzaz eta familiaz duen asmoarekin. Nola daki Jainkoaren nahia zein den? Berarekin zuzenean hitz egiten ote du? Agindu honek ez du izan nahi kardi-

Bedeinkatzerik ez



"Asko harritu nau Frantzisko Aita Santuaren epelkeriak gai honen gainean".

LUIS ARANALDE

"Beste behin idatzi nuen foro honetan Costa Gavras zinemagile handiaren salaketa gogor hura: "Elizak dogmari eman dio lehentasuna beti, gizonaren zoriontasunari eman beharrean"

nalaren esanetan bidegabeberia bat homosexualekin, erritu liturgikoaren egiaren defentsa baizik.

Erreakzioak berehala izan dira. Amberesko Artzapezpikuak esan du: "lotsa sentitzen dut nire Elizarengatik", eta "barkazioa eskatzen die agindu hau ulertezina eta mingarria gertatzen zaien guztiei".

Milatik gora dira apaiz alemaniarrak beren ezadostasuna agertu dutenak Erromako Kongregazioarekin eta esan dutenez bikote homosexualen ezkontzak bedeinkatzen jarraituko dute; "beroi bidelagun izaten segituko dugu".

Behar bada erantzun bortitzenetakoa Errioxako Diputatu Juan Cuatrecasena izan da. "Dirudienez, Eliza katolikoak inkisidore izaten jarraitzen du eta konplexuz bete dago. Berak erabakitzen du bekatua non dagoen eta ahazten du pertsonaren zoriontasuna; bekatua beti bere itsasargi edo faro. Aberrazio bat da homosexualitatea bekatutzat hartzea. Homofobiaren adierazpen garbia da hori".

Asko harritu nau Frantzisko Aita Santuaren epelkeriak gai honen gainean. LGTBIaren

alde keinu ederrak egin ditu (Diego Neria transexualarekin eta Macarena bere bikotearekin, adibidez), baina oraingoan oso motel ibili da. Ez dakit nola onartu duen Vatikanoren jarrera hori. Tamalez, sexualitate arloan berdin jarraitzen dugu. Oso kezkatu dagoela ere irakurri dut eta konpondu nahi duela homosexuali egin zaien injustizia. Hilabete pasa da eta ez dugu bere iritziaren berririk izan. Frantzisko, orden apur bat jar ezazu zure inguruan daukazun inkisidore horien artean, Vatikanok auzo lotsa ematen du eta.

Desberdinak izatea beste errurik eta "gaitzik" ez dute homosexualak. Gurea da arazoa, ez beraiena. Eta gure justifikazio guztiak justifika ezin dira. Aitorpena zor zaie eta ez "errukia". "Bizi zaitezte zaretenarekin bakean, gure gizarteak, kulturak, erlijioak, eragin dizkizuen zauriak sendaturik. Izan zaitezte zaretena", dio Joxe Arregik.

Beste behin idatzi nuen foro honetan Costa Gavras zinemagile handiaren salaketa gogor hura: "Elizak dogmari eman dio lehentasuna beti, gizonaren zoriontasunari eman beharrean". Jarrera hori da justu Jesusek izan zuenaren kontrakoa.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

www.noaUA.eus
USURBILGO ATARIA

Langabetu kopurua gorantz

Iazko joera bera errepikatu da aurtengoan ere. 2020eko otsailetik martxora igoera nabarmena izan zen langabetu kopuruan Usurbilen, 221etik 245era igo baitzen lanik gabeko herritar kopurua. Urtebete beranduago, otsailean langabetu gehiago izanda, 249, 268raino igo zen martxoan, Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleraturiko datuen arabera.



Otsailetik martxora, 249tik 268ra igo zen lanik gabeko herritar kopurua.

Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere joera beretsua atzeman dute.

Usurbilgo azken bi hilabeteotako datuetara itzulita, martxoan gorantz egin arren, iazko uztailean erregistratu-

riko 299 langabetu kopuru horren azpitik da udalerrri honetako langabezia tasa. Igoerak igoera, gizonetako baino emakumezko langabetu gehiago izaten segitzen du Usurbilek; 136 emakumezko

eta 113 gizonetako langabetu otsailean, 138 emakumezko eta 130 gizonetako langabetu martxoan.

Kontratazioari dagokionez, alderantzizkoa gertatu ohi da sarritan; emakumezkoak bai-

no gizonetako gehiago kontratatu ohi dira. Hala gertatu zen otsailean; gizonetako 93 lan kontratu erregistratu ziren, emakumezkoen 84 kontratu. Martxoan aldiz, 115 lan kontratu gizonetakoak izan ziren, 119 emakumezkoenak. Bi hilabeteotan, urte luzez gertatu ohi den moduan, ia kontratu denak aldi baterako hitzartu ziren. Jada aipatua geratu den moduan, kontratazioak gorantz egin du aurreko bi hilabeteetan; otsailean 177 lan kontratu eta martxoan 234 erregistratu ziren. Gorantzko joera bera izan zen baita Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere.

Ika-mika

2020ko hiri hondakinen gaikako bilketaren emaitza, Usurbil 0.0 bide-orrian jasotako helburutik urrun gelditzen da

Udal gobernua mar- txoaren 5eko NOAUAN argitaratutako "Eredu propioaren alde" adierazpe- nean ondo jasota dago: "Usurbil 0.0 da gure ibilbide-orria". Beraz, ez gaitezen engaina, hiri hondakinen kudeaketako emaitzak, ibilbide-orri horretan jasota dauden helburuekin konparatu behar dira, eta ez, 2020ko balantzean egin dena, aurreko urtearekin (2019) alde- ratu.

"Hondakin kopuruak behe- ra egin du 2020an" esaten da udalak zabaldu duen berriaren izenburuan. Baina, ez du aipatu

ere egiten Usurbil 0.0 planean jasota dagoen helburuarekin nola goazen. Plan horrek dio, 2015 urtea erreferentzi bezala hartuz (3022 tona), 2023rako %10 murriztu behar dela. Bada, plana abiatu zenetik hiru urte igaro dira, eta 2020ko emaitzak (3012 tona), 2015ean bezalaxe gaudela adierazten du, denbora honetan (bost urte) ez dela baste murriztu alegia.

"Teknikariaren esanetan, gai- kako bilketaren emaitzak oso ona izaten jarraitu du" esanaz amaitzen da berria. Aipatu ere ez Usurbil 0.0 ibilbide-orrian ja- sota dagoen helburua: 2020 ur- terako Hiri Hondakinen %90a

gaika biltzea. Beraz, helburura iristeko lau puntu faltan gelditu da 2020ko gaikako bilketa (%86). Oso ona dela esaten bada, zertan ari gara?

Usurbilen biltzen den errefusa guztiaren %60ak, industria eta komertzioetan dauka jatorria. Eta honetaz badago datu esanguratsu bat, 2020ko balantzearen berriari aipatu ere egiten ez dena. 2020ko martxoan aztertu zen (karakterizatu) industrietan jasotako errefusaren edukia. Errefusa horretan, %32a birziklagarria zela esaten da azterketa horren emaitza jasotzen duen txostenean. Alegia, industrietan biltzen den errefu-

sean, nahasita, birziklagarriak diren tona asko biltzen dira, gutxienez 80. Horra hor, gaikako bilketa hobetzeko iturri nagusia. Kontua da, aztertu eta gero, zer egin da? Ez dakigu, balantzea jasotzen duen berriari ez baita ezer esaten honetaz.

Eta bukatzeko, "0 errefusa sortzea da xederik behinena" aldarrikatu eta, urte guztian tona 1 bakarrik murrizteari "koska bat beherago" egitea dela esatea, gehitxo esatea ez da?

Errausketaren Aurkako Mugimendua, Usurbilgo Taldea.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patriketa Jatorria

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

GHK “ikertu” egoeran, Arkaitzerrekako hondamendiagatik

Arkaitzerrekako iazko maiatzeko amonio isuriak eragingandako hondamendiagatik Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa (GHK) “ikertu” egoeran dela berri eman du GuraSOSeK. Errausketaren bidea alboratu, ekonomia zirkularraren aldeko politikak sustatu, eta elkarrizketarako eta akordiorako deia egin du aipatu elkarteak, Eusko Legebiltzarreko Ingurumen Batzordean iragan astean egin zuen agerraldian.

Urtea betetzear da. 2020ko maiatzaren 7tik 10era, tarte horretan Zubietako Arkaitzerrekara isuritako amonioak ehunka arrain hil zituen. Begi bistakoa izan zen hondamendia. Hondamendi haren iturria, Zubietan gainean kokatua zegoen, erraustegiaren eremuan. Ordutik hainbat xehetasun ezagutu dira azken urtebetean. Azkena, GuraSOSeK eman zuen ezagutzera iragan astean, Gasteizko Legebiltzarreko ingurumen batzordean egindako agerraldiaren harira. Aipatu batzordeak GuraSOSeK parte hartzea eskatua zuen, Zubie-



2020ko maiatzaren 7tik 10era, tarte horretan Zubietako Arkaitzerrekara isuritako amonioak ehunka arrain hil zituen.

FIDANTZA ESKAERA

Herri akusazio gisa jardungo du GuraSOSeK auzi honetan.

Horretarako 3.000 euroko fidantza eskatu dio auzitegiak elkarteari; herritarren laguntza eskatu dute kopuru hau ordaintzeko

tako erraustegiaren inguruan ikertu ahal izan duena ezagutarazteko.

Agerraldi horren aurretik hain zuzen, prentsaurrekoa eskaini zuten GuraSOSeK ordezkariak Legebiltzarrean bertan, eta hitzordu horretan, Arkaitzerrekako isuriari lotutako albistea plazaratu zuten; amonio isuri hari lotuta, “Guardia Zibilaren ingurumen unitatearen ikerketa baten harira”, auzia ikertzen ari den epaitegiak joan den apirilaren 12an kaleraturiko auto baten arabera, “epaitegiak GHK iker-tu gisa agertzea onartu du,

aurreko Auziperatze Kriminalaren Legeak “inputatutzat” jotzen zuen posizionamendu prozesala” dela ohartarazita.

Ikerketa honetan argitu beharreko gai nagusietako bat, GuraSOSeK urtebete honetan salatutakoa da; ia Zubietako erraustegiak “funtzionamendurako beharrezko baimen guztiak izan gabe” deliturik egin ote den. GuraSOSeK argi du; Arkaitzerrekako iazko maiatzeko isurketak eta larritzat jotzen erraustegian jazotako gainerako “istripu larriak (suteak, transformagailuko leherketa eta sutea) ez dira kasualitatez gertatu, GHK-k gauzen lege ordena ez betetzeko kontzienteki hartutako erabakiagatik eta lanak amaitu aurretik eta gunearen erabilera zuzen eta segurua bermatuko zuten probak egin aurretik, instalakuntza arrisksu bat martxan jartzeagatik” baizik.

Herri akusazio gisa jardungo du GuraSOSeK auzi honetan. Horretarako 3.000 euroko fidantza eskatu dio auzitegiak elkarteari; herritarren laguntza eskatu dute kopuru hau ordaintzeko.

“Erraustegia eraikita egon arren, auzia ixtetik urruti da”

Erraustegiaren irregulartasunei lotutako ikerketa bide gehiago zabalik badirela ere ohartarazi du GuraSOSeK. Epaitegi berean, aurreko diligentsiatan dira “delitu ezberdinengatik, besteak beste, prebrikazioa, faltsukeria, kontratazioan izandako iruzurra edota GuraSOSeK delitu ekologikoagatik aurkezturiko kereila”. Ikerketa hau GuraSOSeK esanetan, “geratua

dago” ikerketa nork bideratuko duen desadostasunak baitaude. “Kereilatuen artean Iñaki Arriola sailburu ohia baitago”, GuraSOSeK zehaztu duenez.

Gertaerok argi uzten dute GuraSOSeK esanetan, “erraustegia eraikita egon arren auzia ixtetik urruti da”.

Europa, beste bidetik

Europako hondakinen balorizazio energetikorako planten

desegiteen testuinguruan egin zuela agerraldia berri eman du GuraSOSeK; “Dinamarkak mota honetako 21 planten herena itxi du, 2019an onartu zuen Aldaketa Klimatikoaren Legeagatik”. Horrez gain, “Europako Inbertsioen Bankuak ekonomia zirkularretik at utzi ditu instalakuntza hauek 2019ko gidan eta Europar Batasuneko adituen batzordeak finantza jasagarrietzako ekintzen kalifika-

zioarekin gauza bera egin du”.

Horregatik, honakoa desadostasun eta gatazka bidea alboratu eta erakunde eta gizarte zibilaren arteko akordioaren alde egiteko une aproposena dela irizten dio GuraSOSeK, “elkarrizketaren bidez akordioa lortzeko” hain zuzen, “bizi eta Ingurumen kalitatea hobetu eta etorkizun jasagarriagoa izateko”.

Taxi busa, herri barruko mugikortasunaren bermea

Ursbildik kanpoko mugikortasuna mugatua dugun honetan, udal herri barrukoa bermatzen segitzen du “Bidez bide”, herri guinea landa eremuarekin lotzen duen udal taxi bus zerbitzuak. 13 urtez zerbitzua gidatzen ari den Maribel Jorgerekin bildu da NOAUA!.

**NOAUA! Beste behin herri-
tik atera ezinik gara. Herri
barruko mugikortasuna ber-
matzen duzu. Zertan da egun
bus-taxi zerbitzua?**

Maribel Jorge: Iazko konfinamendu ostean 65 urtetik gora zituztenekin bakarrik hasi ginen. Uda igarota, zerbitzua normaldu genuen. Adin guztietako erabiltzaileekin gabiltza, baina lehentasuna adinekoek dute. Garai berezia izaten ari da denontzat, batez ere beraiantzatzat, adineko pertsonak hona jaisteko beldurra izaten dute.

**Zerbitzua normaldu duzue bai-
na ibilbidea berri du.**

Zati bat. Ibilbideak bi zati ditu, mendiko buelta eta gero Zubietakoa. Goiko buelta hain luzea ez izateko Iarbetik behera Kaxkora itzultzen gara. Eta gero buelta egiten dugu Aginagara. Txokoalde, Urdaia eta Santuenetik Kaxkora berriz eta



Bidez Bide taxi bus zerbitzura deitzeko haxe da telefono zenbakia: 630 643 596.

MARIBEL JORGE

**“Badirudi ezetz baina
oraindik jende asko dago
bakarrik dagoena. Eta
kasu honetan, taxi busean
goazenean konplizitatea
sortzen da”**

gero handik Zubietako itzulia. Bost minuturen aldaketa da gutxi gorabehera eta hoberako da. Erabiltzaile hainbatek ez du hain bidaia luzea egin beharrik.

**Lehentasuna dute adinekoek
baina erabiltzaileak ere nagusi-
siki haiek dira?**

Denetarik dugu baina batez ere landa eremuko erabiltzaileak

eta haiek denak adinekoak dira. Herrian ibiltzen diren batzuk ere bai. Azkeneko orduan, eskolaz kanpoko ekintzak izaten dituzten gaztetxoak izaten dira nagusiki etxera nirekin bueltatzen direnak. Ordutegia aldatu denez, Zubietako ikastetxeko gazteek ere taxi busa erabiltzen dute.

**Taxi busak pandemiak ekarri-
tako isolamendua hausten
laguntzen die, bereziki landa
eremuan bizi direnei. Hilabe-
teok nola bizi izan dituzte?**

Gehienbat etxetik ateratzeko beldurra izan dute. Denontzako izan da zaila, beraiantzatz ere bai, asko ‘bajatu’ egin dira bai animuz bai fisikoki ere. Azken hilabeteotan ikusi da

pixkanaka batzuk ile-apaindegira jaisten hasi direla, ez beti medikuarena derrigortuta. Baina nabari izan da koronabirusaz kutsatzeko beldurra, haiek baitira gehien sufritu dutenak.

**Taxi buseko gidaria duela 13
urte egitasmoa martxan jarri
zenetik. Zure lana gidari soil
bat izatetik haratago doa?**

Gidaria naiz baina ez ohiko gidari bat. Taxi busa familia bat da. Erabiltzaileek kontaktatzen dizkidan haiekin bizipenak, asko hitz egiten dugu, elkar laguntzen saiatzen gara. Bat baino gehiago bakarrik bizi da eta taxi buseko tarte hori terapia modukoa da. Niretzat nire lana ez da gidatzea soilik, gainera ez zitzaidan gustatuko soilik hala izatea, oso gustura nabil, lan oso polita da.

**13 urteren ostean, Usurbilek
taxi bus zerbitzua behar izaten
segitzen duela esango zenuke?**

Bai, bereziki landa eremuan bizi direnentzat. Badira gazte batzuk baserrian bizi, kotxerik izan ez, autobusez jaisteko aukerarik ez eta gurasoak lanean dituztenak. Aukera oso ona da. Taxi busa haientzat askatasuna da; badakite ordutegia, deitzen didate, joaten naiz.

“Adinekoengan eragin nabaria izan du pandemiak”

**NOAUA! Landa eremua
Kaxkoarekin lotzea zen bus
taxi zerbitzuaren helburue-
tako bat. Bete da ezta?**

Maribel Jorge: Uste dut baietz. Ohitura sortu da, jada badakite hor dagoela eta deitu egiten dute. Medikurengana, ile-apaindegira joateko taxi busaren ordutegira egokitzen dute, oso ondo moldatzen gara.

**Zer eskaini diezaioke taxi bu-
sak zehaztua dagoen ibilbi-
detik kanpo bizi den herritar**

bati?

Ibilbidearen kanpotik dagoen baserri edo etxetik deitzen didate eta ni etxeraino joaten naiz, batez ere adinekoen edo mugikortasun arazoak dituztenen kasuan. Askatasuna eskaintzen du, inoren mende ez ibiltzeak, niri deitu eta badakite joan eta eramaten ditudala. Beraiantzatz lasaitasuna da. Etxeraino joaten naiz eta gero etxeraino eramaten ditut, ez dago arazorik.

Nolatan heldu zinen taxi buse-

ko gidari izatera?

Nire bizitza aldatu nahi nuen. Autobuseko gidabaimena atera nuen eta Lanbidetik deitu zidaten segituan. Usurbilen gidatze-ko aukera bazela jakinarazi zidaten eta ‘hau nirea da’ esan nuen. Bi aurkeztu ginen eta ni hautatu ninduten. Jendea zozgarria da.

**Bizimoduz aldatzeko apustuak
merezi izan zuen?**

Niregatik jubilatu arte hementxe geratuko nintzateke. Denak

oso gustura daude, ni beraiekin eta beraiek nirekin espero baita. Gozagarria da.

**“Denok oso gaizki pasa dugu”
Pandemiak ez dezala zerbi-
tzua eten berriz, iazko uda-
berrian bezala.**

Denok oso gaizki pasa dugu, bat baino gehiago bakarrik egon zen. Adinekoengan eragin nabaria izan du. Haientzat bereziki askoz okerragoa litzateke zerbitzu hau etetea.

“Migrazioari maskarak erauzten” ikus-entzunezkoa sarean da ikusgai

Aztiak Usurbilgo Udalaren eskatuta egindako ‘Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Usurbilen’ ikerketaren osagarri den ikus-entzunezko lana ikusgai dago udalaren webgunean. Liburutegian ere maileguan hartzeko aukera izango da.

Migrazioaren inguruko esperientziak eta diskurtsoak jaso dituzte ikus-entzunezko honetan, Aztiak egindako *Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Usurbilen* ikerketaren osagarri gisa. Martxoaren 27an estreinatu zuten lan hori, Sutegin, jatorri aniztasunaren inguruko 2021eko Mundualdiaren barruan. Laster, liburutegian maileguan hartzeko aukera izango da, USB formatuan, eta ikusteko interesa agertu duten hainbat talderekin harremanetan da udala, emanaldiak antolatuz.

Ikus-entzunezkoa Usurbilek jasotako bi migrazio prozesu nagusietan oinarritzen da: 1960/70eko hamarkadan Espainiatik etorritakoan, eta



Ikus-entzunezkoa udalaren webgunean dago ikusgai.

Dokumentala Usurbilek jasotako bi migrazio prozesu nagusietan oinarritzen da

2000. urteaz geroztik munduko hainbat tokitatik etorritakoen. Arreta lehenengoan jarri du, aniztasunean eta elkarbizitzan sakontzeko helburuarekin, nahiz eta bigarrenak ere agertzen diren. Aztiak ikerketan parte hartutakoak dira ikus-entzunezkoan ageri diren gehienak, hamasei herritar, guztira.

Usurbilgo Udala urteetan ari da jatorri aniztasunaren

azterketa egiten, Euskal Herrikan kanpo jaiotako bizilekua kontuan izanda: Usurbilgo biztanleak non jaiotakoak diren azaltzen du, bestelako hainbat aldagairekin batera. Oraingoan, ordea, jauzi kualitatibo bat eman du: azterketa kuantitatibo ez ezik, migrazioaren inguruko esperientziak eta diskurtsoak biltzera jo du, guztien arteko elkarbizitzan sakontu asmoz. Zentzu horretan, herritarrekin egindako elkarrizketek udalak aurrera begira zein urrats egin ditzakeen definitzeko balio izan dute, eta lanketa horretan murgildurik dago da-goeneko.

Maiatzaren 3an, odol-ematea

Aurretik odola eman dutenei deitu egingo zaie hitzordua zehazteko. Aldiz, lehen aldiz eman nahi duenak maiatzaren 3an goizean bertan ondorengo telefonora deitu behar du eta hitzordua eskatu: 943 007 884.

Usurbilgo Odol Emaileen taldetik 18 urte beteta dituzten herritar guztiak animatu nahi dituzte odola ematera.

Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa

Sinadurak biltzen segitzen du Gure Eskuk. Larunbat eguerdian frontoi atzean egokitu zuten postua. Eta sarritan ikusiko ditugu udaberri honetan kalean; sinadurak bildu edota kamisetak saltzen.



Gure Esku taldea sinadurak batzen aritu zen larunbatean.

Hilobien eskubideak esleitzeko epea zabalik da

Hilerriko hilobien sorta berri bat eskaini du Udalak, eta eskaerak egiteko epea zabalik dago jada, maiatzaren 24ra arte, egun hori barne. Guztira, 27 hilobien eskubideak emakidan esleitzea onartu zuen otsaileko osoko bilkurak aho batez, eta 50 urteetarako eskainiko dira.

2000. urtean egin zen Usurbilgo hilerri berria, eta ordutik gorpuzkirik ez da atera handik. Ohiko prozeduraren arabera, hamar urtez egon daitezke gorpuzkiak hilerrian, baina oraingo honetan ez da halakorik izan, gaur arte. Ehorzleak, ordea, hilerria hus-



Hilerriko hilobien sorta berri bat eskaini du Udalak, eta eskaerak egiteko epea zabalik dago jada.

teko beharra helarazi dio Udalari: hormako 144 nitxoak beteta daude, eta lurrekoak soilik gelditzen dira libre. 48 eskutitz

bidali zituen Udalari, hilerri sartu zirenen hurrenkeran, gorpuzki horiekin zer egin nahi zuten galdetzeko seni-

tartekoei. Gorpuzkiak berreskuratu nahi dituenak Udalari jakinarazi behar dio, hori egin ezean, Udalak gorpuzkiak erraustu eta errautsen parkean botako baititu, ohiko prozedurari jarraituz.

Zenbait familiek, ordea, gorpuzkiak bertan uzteko nahia azaldu dute, eta horretarako modua libre dauden hilobi eta panteoien gaineko eskubideak esleitzea da.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta 30 eguneko epea dute familiek eskariak egin ditzaten. Epealdia maiatzaren 24an amaituko da.

“Neonak Ilargi berria esan nahi du, eta mezu hori egokia iruditu zitzaigun eraberritzea irudikatzeko”

Natali taldeak izena aldatu dio taldeari, Neona izena izango dute aurrerantzean. Pandemia garaia musika arloan gogorra izaten ari bada ere, abesti batzuk grabatu berri ditu taldeak, eta bigarren diska bidean da. Taldeko abeslariarekin izan da NOAUA! taldearen itzulera berriaren xehetasunen berri izateko.

NOAUA! Izena aldatu berri diozue taldeari, zer dela eta? Zergatik Neona Band?

Natali Izagirre: Izena aldatzea modu naturalean sortu da. Azken urte honetan buelta asko eman dizkiogu kontu horri. Talde modura funtzionatzen dugu guk, eta lehen diska atera genuenean Ixak eta nire arteko proiektu bat zen. Nire abestiak ziren batik bat, eta Ixaken laguntzarekin atera genuen aurrera proiektua. Garai hartan bazuen zentzu hura, baina azken boladan talde moduan egin dugu lan. Nahiz eta abestien letrak eta konposaketa Ixak eta bion artean egin, lan hori musikalki janzteaz denok arduratu gara talde izaera indartsu batekin. Zentzu horretan, taldearen izena Natali izateak zentzua galdu zuen, eta izen berri bat bilatu beharra geneukan. Inoiz bakarkako ibilbidearekin ja-



“Neona izena zerotik hasitako proiektu bat da, nolabait esatearren”.

NATALI IZAGIRRE
“Taldearen izaera berri bat aterako da hemendik. Orain konposatzen ari garen kantuak azkarragoak eta dantzagarriagoak dira, landuagoak dira eta hobeto pentsatuak”

rraitu nahi badut, Natali izena izango luke proiektuak eta horretarako gordeko nuke. Neona izena jartzea erabaki genuen eta zerotik hasitako proiektu bat da nolabait. Zergatik Neona? Ez zaigu erraza egin izen bat erabakitzea. Paper batean burutazio guztiak jartzen aritu ginen, baina ez genuen proposena topatzen. Azkenean

Neona erabaki genuen. Mugikorrean hiru izen berri nekartzan, eta irakurri egin nizkien, horien artean Neona. Izen hura irakurri nuenean, denoi iruditu zitzaigun oso egokia. Ilargi berria esan nahi du atzerriko hizkuntza batean. Mezu hori oso egokia iruditu zitzaigun gure taldearen eraberritzea sinbolizatzen duelako, eta izena ere polita iruditu zitzaigun.

Aro berri baten aurrean gaude la esan daiteke? Kontzertuak aurreikusita daukazue?

Taldearen izaera berri bat aterako da hemendik. Orain konposatzen ari garen kantuak azkarragoak eta dantzagarriagoak dira, landuagoak dira eta hobeto pentsatuak. Garai hauetan kontzertuak izatea ere ez da erraza eta gu ere ez gara

bila ari. Abesti berriak egin eta diska berri batean lanean ari gara. Maiatza edo ekaina aldera Astarbe sagardotegian kontzertu bat eskaintzea aurreikusita daukagu, baina oraindik zehazteke daukagu. Irailerako ere deitu digute kontzertu bat proposatzeko, baina gainontzean ez daukagu ezer zehaztuta.

Abesti berri bat grabatu berri duzue, hala ere. Non eta noiz izango dugu eskuratzeko aukera?

Garate Estudioetan izan gara berriki bigarren diskoaren lehen grabaketetan. Lehenengo diskoa ere bertan grabatu genuen, eta emaitza asko gustatu zitzaigunez haiekin errepikatzea erabaki dugu. Kakirekin ere harreman ona dugu, eta abestiak grabatzen aritu gara Kakirekin eta Martxelekin. Momentuz abesti bat kaleratzeko asmoa daukagu, single bat izango da: nire geltokia. Bideoklip eta guzti aterako da, gainera. Oraindik zehazteke daukagu noiz aterakodan, baina maiatza amaitzerako izatea nahiko genuke. Gainontzean, beste pare bat single ere diska baino lehen kaleratzeko asmoa daukagu aurrerapen modura Neonaren izaera pixka bat erakusten hasteko.

“Behin konfinamendutik aterata, entseguak egiten hasi ginen”

NOAUA! Nolakoak izan dira pandemiak iraun dituen hila-beteak? Kontzertuak eskaintzeko aukerarik izan duzue?

Natali Izagirre: Nahiko gogorak izan ziren, entseguak egiterik ez geneukan. Disko berriaren ilusioarekin genbiltzan, zerbait sortzeko ideia

horrekin, eta azkenean, bakoitzak etxetik ahal genuen bezala lan egin behar izan genuen. Sareetara igo ahal izateko abesti baten remake txiki bat egin genuen, baina konposaketak egiteko nahiko zail izan genuen. Taldearentzat geldialdi bat izan zen. Behin konfinamendutik

aterata entseguak egiten hasi ginen pixkanaka, baina herri-tik atera ezinik egon garenetan ere arazoak baino ez ditugu izan taldeko hiru kide ez baitira usurbildarrak. Ezjakintasun handi batean murgilduta gaude nire ustez, eta bihar zer izango den ez jakitea arazo da edozein

proiektu aurrera eraman ahal izateko. Musika eta kultura arloarentzat orokorrean ez dira batere garai errazak. Udan, Usurbilgo Kultur Biran eta Zumaian ere jo genuen. Azaroan, berriz, Plateruenan. Hortik aurrera ez dugu aukera gehiagorik izan.

“Betidanik izan dut eskulturarako joera”

Artzabal jatetxean zintzilikatu berri ditu bere azken lanak Manu Urbietaren zarautzarrak. Usurbilen aski ezaguna da Urbietaren, Eskola Kirolean eta Zirimararen lan egiten duelako, baina kirolaz gain, zaletasun gehiago ere baditu, eta eskulturrekiko duen goxotasuna da, hain zuzen ere, Artzabalen ikusgai jarri duen erakusketaren muina. Maiatzaren 15era arte egongo da arte-lanez gozatzeko aukera.

NOAUA! Kirol arloan ezagunago zaitugu, baina artearen arloa ere lantzen duzu.

Manu Urbietaren: Betidanik izan dut eskulturarako zaletasun hori. Kirolean urteak daramatzat Usurbilen hurrekin lanean, eta 2020-2021 urte arraro honetan denborari etekina ateratzeko aukera izan da eskultura.

Eskultura bai, baina argazkiak ere badaude Artzabalgo erakusketan.

Argazkiak Pablo Azkuerenak dira. Nik markoak eta antolaketa egin dut. Pablo Azkue surflaria da, eta itsasoan ematen du eguna. Harreman ona daukagu, eta esan nion nola 3D-n lanak egiteko asmoarekin nabilen. Eskultura jolas bat da, nolabait. Zarautzen haurrak ginela hondartzan jolasten ginen malekoitik behera doazen aldapa batetik bestera



Manu Urbietaren artelanak Artzabalen topatuko dituzue. Maiatzaren 15era arte egongo da erakusketa zabalik.

MANU URBIETA

“Denetik probatzea gustatzen zait, eta denbora daukadanean gauza desberdinak esperimentatzen ditut”

hondartzatik korrika pasatuta ea norik olatuak harrapatuko. Hori zen gure txikitako jola-

sa, eta oraindik ere haur asko horretan aritzen dira. Erakusketako argazkiek erakusten dute azken urteetan urak egin duen gorakada, orain umeak hondartzan baino malekoian jolasten baitira jolas horretan. Hausnarketa hori aipatu nion Pablorigi, eta hortik sortu zituen argazkiak. Gero nik, argazki horien antolaketa eta markoak

prestatu nituen. Horiez gain, zintzilik dauden gainontzeko lanak nireak dira, margolanak eta grabatuak. Kontua da oso zaila dela 3 dimentsiotako eskulturak tabernetan erakusgai jartzea, peana edo gisa horretako zerbait behar da leku aproposa izan dadin lanarentzat, eta askotan enbarazu ere egin dezakete.

“Basoko egurra eta metalak lantzea gustuko dut”

NOAUA! Artzabalgoa da zure lehenengo erakusketa?

Manu Urbietaren: Ez, jarri izan ditut erakusketak Zarauzko taberna batean ere. Lagun bat daukat bertan eta horrek aukera ematen dit nire lanak jartzeko, bai eta ezagunen lanei lekua egiteko ere. Ardura hori hartzen utzi zidan tabernako jabeak, eta aukerak izaten ditut

Lukas tabernan. Azken urtean denbora gehiago izan dudanez, lan gehiago erakusteko aukera izan dut.

Zein motatako lanak egin ohi dituzu?

Ez daukat estilo jakinik edo diziplina konkreturik. Momentuan buruan darabilkidana egiten dut. Denetik

probatzea gustatzen zait, eta denbora daukadanean gauza desberdinak esperimentatzen ditut. Basoko egurra eta metalak lantzea gustatzen zait batik bat, materialen mundu hori.

Nondik datorkizu eskulturarako zaletasuna?

Aitak oso ondo margotzen

zuen. Musikaria genuen aita, eta musika sortzeaz gain ipuinak egiten zituen musikaren baitan. Ipuin horien ilustrazioak egiteaz ere bera ardurtzen zen.

Txikitatik izan dugu gertu artea etxean, eta hortik etorriko zitzaidan edo. Ez daukat arlo horretako ikasketarik, zaletasun bat da niretzat.

“Artzabalgoa erakusleiho polita da”

NOAUA! Nolatan ipini duzu erakusketa Artzabalen?

Manu Urbietak: Igor Gorritik aipatu zidan ea Artzabalen jartzea interesatuko litzaidakeen.

Lehenago ere, duela bi edo hiru urte jarri nuen beste erakusketatxo bat. Erakusleiho polita da, eta asko gustatzen zait hemen nire lanak jartzea. Igorri ere artea gustatzen zaio, eta horrela aukerak sortu zaizkit.

Beste norabait eramango duzu erakusketa, behin Artzabalen amaituta?

Oraindik ezer zehaztu gabe daukat, baina Tolosan badaukat lagun bat eta han jartzeko proposamena ere egin zidan. Beraz, Zarautzera eramanez aurretik, agian Tolosan jarriko dut.

Behin erakusketak amaituta zer egiten duzu lanekin?

Tailer bat daukat, eta bertan uzten ditut. Berehala nator izena du tailerrak. Askotan



“Lanak ere saltzen ditut gastuak kubritu ahal izateko”, adierazi digu Manu Urbietak.

MANU URBIETA

“Tailer bat daukat eta bertan gordetzen ditut nire lanak. ‘Berehala nator’ izena du tailerrak”

atean berehala nator txar-

tela jartzen nuen ateratzen nintzenean eta izen horrekin geratu da. Hantxe edukitzen ditut lanak, eta gero aukera daukadanean azoketan lanak jartzera ere animatu izan naiz.

Uda honetan agian hori

egingo dut, ez dakit. Lanak ere saltzen ditut gastuak kubritu ahal izateko. Materialak ez dira merkeak izaten eta lan batzuk egiteko beste artista batzuei eskatu behar izaten diet mozketa lanak egiteko edo dena delakoa.

ARNasa GARA

EGUNEROKOAN ZER?



Arnas Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen amasguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.

www.arnasagara.eus

martxoaren 22tik maiatzaren 14ra astero bideo bat eta elkarrizketa bat



Azken mendeetan euskal dantzak eta generoa nola uztartu diren aztertu zuten Sutegin

Genero-identitateak euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan izan duen garrantziari buruzko hitzaldia eskaini zuen Oier Araolaza kazetari, antropologo eta dantzariak aurreko astean Sutegin.

Araolazaren hitzetan, ehun urtez euskal dantzak genero ardatzaren arabera sailkatuta erakutsi dira: nesken dantzak batetik eta gizonen dantzak bestetik. Baina emakumeen eta gizonen dantzak, janzkerak eta dantzakerak bereizten dituen marra hori ez da dan-



Oier Araolazak hitzaldia eskaini zuen pasa den astean Sutegin.

tzaren historiaren aro guztietan berdina izan. Aurrekuaren eta

orokorrean gizarte kohesioan euskal dantza izandako ga-

rantziaren bilakaera izan zuen ardatz, eta ikuspuntu horretatik, generoak izandako papera aztertu zuen. Zentzu horretan, egun daukagun euskal dantzen pertzepzioa auzitan jarri zuen Araolazak, ia historiaren etapa guztietan emakumeek parte-hartze aktiboa izan baitute, eta gizarte kohesioan garrantzia berezia dantzak, egun daukan individualismotik urrun.

Tesia egin ostean, liburua argitaratu zuen Araolazak eta eskuragarri dago hainbat lekutan “Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan” izenburupean.

Tranpaldo gosez



Partehartzaille ugari batu ziren lehenengo Tranpaldo Irekian. Denetarikoa dantzak eskaini zituzten.

Hitzak soberan daudenean



Dantza garaikidearentzako tokia ere izan da aurtengoan. Myriam Perez Cazabonen konpainiak ‘Mutu’ izeneko ikuskizuna eskaini zuen Sutegin.

“Zorotan Bele” ikuskizuna, belaunaldi ezberdinen topaleku



“Zorotan Bele” herri ikuskizuna Usurbilgo belaunaldi ezberdinen topaleku izan zen. Larunbat iluntzean Oiardo kiroldegira bertaratu zirenak emanaldi gogoangarri baten lekuko izan ziren: dantza, hitzak eta musika, etxekoen eskutik. Argazki gehiago noaua.eus atarian topatuko dituzue.

Itxiera perimetrala ezarri dute

Dakizenez, iragan apirilaren 21etik eremu gorrian da Usurbil, 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia 400etik gorakoa baitu ordutik. Eta etenik gabe igotzen joan da egunotan. Aste hasierarako, 602,41eko intzidentzia zuen udalerrri honek.

Apirila hasi zenetik 53 Covid-19 kasu detektatu ditu Osasun Sailak Usurbilen. 22 kasu apirilaren 19tik 25eko astean.

Neurri zorrotzagoak

Eusko Jaurlaritzak astelehenero eguneratzen du eremu



Asteartez geroztik neurri murriztaile berriak indarrean dira Usurbilen.

COVID KASUAK

**“Apirila hasi zenetik
53 Covid-19 kasu
detektatu ditu Osasun
Sailak Usurbilen”**

gorrian, 400etik gorako intzidentzia duten 5.000 biztanle baino gehiago edo gutxiago dituzten udalerrien zerrenda eta neurri murriztaile zorrotzagoak indarrean jartzen ditu herriotan.

Eremu gorrian

Apirilaren 26an berriro zuen aipatu zerrenda azkenekoz. 602,41eko intzidentziarekin EAE mailako eremu gorrian diren udalerrien zerrendan kokatu zuen Eusko Jaurlaritzak Usurbil. Ondorioz, biharramunetik, asteartez geroztik neurri murriztaile berriak indarrean ditugu.

“Neurri horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean pertsonak sartu eta irteteko mugari, ostalaritzari eta jattetxei, kirolari eta joko zein apustuen lokalei buruzkoak dira”, argitzen du Osasun Sailaren ebazpenak.

Ostalaritza guneen barruan egoteko ordutegia murriztu egin da

Egunotan neurrikin elkarbizi beharko dugu, maiatzaren 3ra arte gutxienez. Eusko Jaurlaritzak egun horretan eguneratuko du berriz, eremu gorrian diren udalerrien zerrenda:

Etixeratze-agindua:

■ 22:00-06:00 artean.

Udalerrri mailako itxiera perimetrala:

■ Usurbilek mugakide dituen udalerrietara (Orio, Lasarte-Oria, Donostia) erosketak egin eta aire zabalean jarduera fisikoa egiteko aukera baimen-

dua.

Bilkurak:

■ Gehienez 4 pertsonakoak espazio pribatuetan.

Merkataritza eta jarduerak:

■ 21:00etan itxiera edota amaiera ordua.

Ostalaritza:

■ 20:00etan itxiera ordua.
■ Ostalaritza guneen eta joko-lokalen barruko erabilera ordutegi honetara murriztuko da: 06:30-09:30 / 13:00-16:30.
■ Erabilera %50ekoa izango da.

■ Debekatua egongo da barran edo zutik kontsumitzea.

■ Mahai bakoitzean, gehienez 4 pertsona.

■ Musukoa derrigorrezkoa, jan edo edateko unean izan ezik.

Gaueko aisia:

■ Ordu tarte honetako estalezimendu eta lokalak itxita.

Kultura:

■ %35eko edukiera.

Beilatoki eta ehorzketetan:

■ Aire zabalean 30 lagun gehienez, leku itxietan 6.

Kirola:

■ Kirol-instalazioetan %50eko edukiera.

■ Aldagelak itxita.

■ Ikuslerik ez kirol-ekitaldietan.

■ Barruan egiten den kirolak (talde profesionalak eta federatuak izan ezik) 4 pertsonako taldeetan. Gainerako herrietan, aire zabalean edo barnealdean, gehienez 6.

■ Kiroldegiko aldagelak eta dutxak, itxita.

■ Musukoa derrigorrezkoa, lehiaketetan eta kanpoan egiten diren jarduerak fisiko bizi- zietan izan ezik.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Yolanda Arrieta eta Ugaitz Agirre, “Geuretik Sortuak” beka deialdian saritu dituzten sortzaileen artean

Usurbilgo udalerria kide duen Udalbiltzak “Geuretik Sortuak” literatura, antzerkigintza eta zinegintzako sorkuntza lanak euskaraz sustatzeko abian duen egitasmoan nortzuk parte hartuko duten, hautatuak izan diren sortzaileen zerrenda kaleratu du. 26 artista guztira; tartean bi herritar, Ugaitz Agirre eta Yolanda Arrieta idazleak.

Usurbildik kanpo gehienez 3 asteko egonaldia egiteko aukera izango dute. “Tokian tokiko istorio batean oinarritutako kontakizun artelanak sortuko dituzte artistek, beti ere, euskaraz”. Usurbil ere sorkuntza lan hauetako bat bideratzeko egoitza izango da. Gure artera dator Itxaro Borda idazle eza-guna.

73 proposamen artistiko jaso ziren

Euskarazko sorkuntza lanak sustatzeko Udalbiltzak abian jarritako “Geuretik Sortuak” proiektuak, lanok bideratzeko artista taldea hautatua du. 26 sortzaile guztira, otsailaren 5era arte eskabideak aurkeztu



Hautatuak izan diren sortzaileen artean dira Yolanda Arrieta eta Ugaitz Agirre.

UDALBITZA

“Tokian tokiko istorio batean oinarritutako kontakizunak sortuko dituzte artistek, beti ere, euskaraz”

zituztenen artean. Guztira 73 proposamen artistiko jaso zituen Udalbiltzak; 21 literatura

lan, 24 antzezlan eta 28 film labur.

26 lan izan dira hautatuak

“Hamar pertsonaz osatutako epaimahai baten bitartez, martxoaren 23an erabaki zen zein artistak jasoko zuten beka hori; eta hurrengo egunean egindako beste saio batean erabaki zen zein udalerritara joango zen artista bakoitza”, berri eman du Udalbiltzak.

Proposamen anitzak

26 izan dira hautatuak, “horien artean kulturaren munduko zenbait izen handi, baita berri eta ezezagunagoak diren bartzuk ere. 16 idazle, 5 zinegile eta 5 antzerki konpainia dira; eta era guztietako heterogeneotasuna bermatu da hautaketan, proposatutako gaien, adin-tartearen edota lurraldetasunaren aldetik, baita genero parekideotasuna ere”.

Usurbil, aurkezpen zirkuituan

Usurbil hainbatetan aipatua dator hautaketa honetan. Usurbilgo bi sortzaileek proiektu bat garatzeko aukera izango baitute; Ugaitz Agirrek Artziniegan eta Yolanda Arrietak Etxarri-Aranatzen. Eta adi, Usurbil ere artista hauetako baten aldi baterako egoitza izango baita; Itxaro Borda idazle ezagunarena.

Literatura, antzerkia eta

zinema lanak sortzeko beka bana jasoko dute sortzaile guztiok. Egonaldia egin ahaliko dute haien bizilekua ez den beste udalerritara eta tokian tokiko istorio batean oinarritutako kontakizun artelanak sortuko dituzte artistek, beti ere, euskaraz. Arte diziplina bakoitzeko, lanak amaitzeko epe bat ezarri dute: eleberri motza edo ipuina 2021eko irailaren 17a, antzezlanak 2022ko urtarrilaren 28a eta film labu-

rra (postprodukzioa barne) 2021eko azaroaren 26a. Parte hartu duten herri guztiak sare-tuko dituen aurkezpen zirkuitu bat osatuko dute sortutako lanekin.

Xehetasunak, maiatzean

Egitasmo honi buruzko xehetasunak maiatzean emateko da Udalbiltza, sortzaile hautatuekin edota egonaldiak egiteko aukeratuak izan diren udalerritako ordezkariekin.



Itxaro Bordak hiru asteko egonaldia egingo du Usurbilen.

Mendi martxa, presoen auziaren konponbidearen alde

Giro euritsuagatik iragan urriaren 3an Euskal Herriko 650 mendi ton-toretara igotzeko Sarek egini-ko deialdia maiatzaren 8ra arte atzeratzea erabaki zuten. Ate joka da honenbestez, "Izan Bidea" dinamikaren bueltan euskal presoen auziari aterabide bat eskatzearen aldeko mendi martxen eguna. "Presoak etxe-rantz itzultzeko bidearen hasiera aldarrikatuko dugu, eta, helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da urruntze-politika bertan behera uztea eta gradu-progresioa aplikatzea preso guztiei".



Maiatzaren 8an Andatzara igotzeko gonbitea luzatu die Sarek usurbildarrei.

Tontor guztietan egun eta ordu berean elkartzeko hitzordua finkatu du Sarek; maiatzaren 8an, 11:30ean. Usurbilen, Andatzan. Adierazpen bateratu bat irakurriko da une horretan, eta adi, "Ikusi mendizaleak" kanta ezaguna abesteko gonbita egingo die Sarek tontoretara igotakoei. Inguruko mendi gailurretan ere antzeko ekitaldiak egingo dituzte une berean.

Ekimenean parte hartzeko izena eman 650tontor.sare.eus atarian (herria eta gailurra hautatu behar dira) edota Usurbilgo Sarek apirilko

ANDATZARA

"Ekimenean parte hartzeko izena eman 650tontor.sare.eus atarian edota ostiral honetarako Mikel Laboa plazan deituen elkarretaratzean jarriko duen postuan"

azken ostiral honetarako Mikel Laboa plazan deitu duen elkarretaratzean jarriko duen postuan. "Ekimen polita eta esanguratsua da, erakusteko

prest gaudela urratsak emateko, aldapan gora edo aldapan behera, baina guztiok batera, euskal presoek eskubideen urraketa desager dadin", Sarek berri eman duenez.

Andatzara igotzeko hitzordua 9:30ean jarri da Mikel Laboa plazan.

Deialdiak

Apirilak 30, ostirala

■ 20:00 Euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Maiatzaren 8ko ekimenerako izen emateko

postua eta argibideak.

Maiatzak 8, larunbata

Euskal Herriko tontorren igoera

■ 09:30 Andatzara abiatzeko hitzordua Mikel Laboa plazatik.

■ 11:30 Andatza tontorrean bildutzeko hitzordua. Ekitaldia: adierazpen baten irakurketa, "Ikusi mendizaleak" kanta abestea...

■ Izen ematea eta informazio gehiago: Sarek asteburuetan Mikel Laboa plazan jarriko duen postuan edo 650tontor.sare.eus atarian.

■ Deitzailea: Sare.

Pentsamendu kritikoa hizpide Elhuyar Solasaldietan

Apirilak 28 asteazkena: Pentsamendu kritikoa hizpide

Agustin Arrieta Urtizbera EHUko filosofia irakasleak pentsamendu kritikoa izango du hizpide apirilaren 28ko solasaldian. Egungo gizartearen eraldaketa-prozesu azkar eta etengabe jasotzen dugun gehiegizko informazioa aztertzeko pentsamendu kritikoa garatzeko beharraz ariko da. Pentsamendu kritikoak lagunduta, informazio partzialen eta interesatuen inguruan eta

ebidentzietan oinarritutako informazioa eraikitzeko premiaz ariko da.

Maiatzak 5 asteazkena: Ekonomiaren berreraikuntza, ekologiatik

Covid-19aren ostean, ekonomiaren berreraikuntza ekologikoaren alde egin beharraz ariko dira Mirene Begiristain Zubillaga ekonomialaria eta Arturo Elosegi Irurtia biologoa. Euskal Herriko lauhun zientzialaririk baino gehiagok

argitaratutako agiriaren sinatzaileak dira Begiristain zein Elosegi.

Maiatzak 12 asteazkena: Adimen artifiziala hizkuntzan

Azken hitzaldian, Xabier Arregi Iparragirre EHUko irakasle eta IXA taldeko kideak eta Xabier Saralegi Urizar Elhuyarrek kideak *Adimen artifiziala hizkuntzan* gaia izango dute hizpide. Arlo honi ikuspegi sozial bat nola eman aztertuko dute.

Solasaldi denak Sutegin egingo dira

■ Solasaldi denak Sutegin egingo dira, arratsaldeko 18:30ean hasita.

■ Streaming bidez jarraitu ahal izango dira usurbilkultura.eus eta zientzia.eus atarietan.

■ Hitzaldiak doakoki izango dira, baina Sutegira bertaratzeko aurrez izena eman behar da, indarrean dauden edukiera-mugak direla eta.

Zaintzari buruzko saio bat antolatu du Hitz Ahok

Txerto emozionala hitzaldi zikloa amaitu berrikan, Hitz Aho guraso elkarteak saio berri bat iragarri du. Honakoan, zaintza izango da hizpide nagusia. Maiatzaren 12an asteazkena, 17:30ean hasita. Online izango da baina aurrez eman behar da izena.

“Ondo egotea batere erraza ez den garaian bizi gara, baita baldintza duin samarrak izanda ere. Pandemiaren garaia baino lehenago ere, gutako askok emozioen kudeaketan trebatzen jarraitzeko beharra baguen. Izan ere, zer sentitzen ari garen jakitea konplexua izan daiteke. Eta batzuetan emozio horri nola erantzun jakiteko galdu samar aurkitzen gara, konkretuki nondik hasi jakin gabe”. Arrazoi horregatik, Hitz Ahok emozioen trebaketari buruzko saioa antolatu du.

Maiatzaren 12ko bilkuran “abiapuntu bat proposatu nahi



Izen-ematea harremonakusurbil@gmail.com emailera idatzita egin behar da.

HITZ AHO

“Abiapuntu bat proposatu nahi dugu, inspiratzeko lagungarri izan daitekeena”

dugu, inspiratzeko edo eta kokatzeko lagungarri izan daitekeena. Geure beharrei arreta jartzen laguntzeko tresna bat sortu dugu eta honekin esperimentatzeko saioa izango dugu hau; proposamen praktikoa izango da, alegia”.

Maiatzak 12 asteazkena

- Arratsaldeko 17:30ean.
- Online, helbide honen bitartez: udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola
- Izen ematea harremonakusurbil@gmail.com eposta helbidera idatzita egin behar da. “Saioarako materiala aurrez bidaliko dizuegu”, diote Hitz Ahoko kideek.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Arremanitz eta Udarregi Ikastolako Hitz Aho Guraso Eskola.

Udal dirulaguntzak eskatzeko garaia da

2021eko udal diru laguntzen oinarriak apirilaren 7an eman zituzten argitara Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Deialdi honen bitartez, Gizarte-Ongizatea, Ingurumena, Kirola, Kultura eta Nekazaritza-Abeltzaintza udal saileri lotutako egitasmoak sustatuko dira.

Oinarriak, sarean kontsultagai

Elkarte, erakunde zein norbanakoei Usurbilen hainbat alorretan egin asmo dituzten ekimenak sustatzeko, dirulaguntzen deialdia arautzen dituen oinarriak apirilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizia-

lean edota Udalaren web orrian eskura ditzakezue: usurbil.eus/eu/dirulaguntzak helbidean.

Eskaerak aurkezteko azken eguna: maiatzak 5

Dirulaguntzak eskatzeko epea maiatzaren 5ean asteazkena amaituko da.

Udajolasen izen-ematea ostiral honetan amaituko da

Izena emateko azken eguna: Apirilak 30 (egun hau barne).

Internetez:

<https://noaua.eus/bereziak/udajolas-2021>

Kuota:

85 euro. Familia ugaria: 69.

Ordainketa:

Laboral Kutxako kontu honetan. Garrantzitsua da UDAJOLAS eta haurren izen-abizenak adieraztea. ES28 3035 0140 34 1400025811 (Usurbilgo Udaleko kontua).

Plazak:

Gehienez ere 200.

Aurkeztu beharrekoa:

- Izena ematerakoan, dokumentuok bidali behar dira elkartea@noaua.eus helbidera:
- Ordainketa-agiria.
- Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia.
- Familia ugarien kasuan, familia ugarien txartela edo familia liburuaren kopia.

Oharrak:

- Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko.
- Informazio gehiago 688807336 eta elkartea@noaua.eus helbidean.
- Izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, diruaren % 100 itzuliko da.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ETXETRESNEN KONPONKETA-SALMENTA
MARKA GUZTIAK

DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI!

645417665
xabier

Otar-Goxo
Elkagariak

Zubiaurrenea, n°2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramun- to kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genduke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen daki pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagiria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

BESTELAKOAK

Giltza batzuk galdu dira Zumartegi poligonoan, tren geltokiaren inguruan. Giltzen artean da Opel ikurra duen bat. Topatu baduzu jar zaitez harremanetan: 650 488 094.

Sagarrak txikitzeko egurrezko makina bolantearekin salgai. 678082127 (Aitor)

Sukaldeko Ekonomia oso egoera onean saltzen dut, gutxi erabilia. 678082127 (Aitor)

Potxoenea aurreko petrilean, mahaien ondoan, betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Udaltzainetan utzi ditut.

Bose markako 2 bafle (Studio-craft 300ST) salgai. 80 euro. 3 biakoak, 15-60W. 85dB sentzibilitatea. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio).

Technics SB-C57 bi bafle salgai. 80 euro. 3 biakoak, 80W. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak Markel!**

Maiatzaren 2an, 11 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez.

**Zorionak Ani!!**

Apirilaren 29an zure urtebetetzea denez, zortzi muxu potolo zuretzat!!

Goardiako farmaziak

Osteguna 29 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 30 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 01 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 02 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 03 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 04 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 05 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 06 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 07 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 08 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda

apirila/maiatza

30 ostirala

- **Presoen eskubideen aldeko elkarretaraztea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzaila: Usurbilgo Sare.
- **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabal jate-txean.

01 larunbata

- **Erreferendumaren aldeko sinadura bilera** 12:00-14:00 Usurbilgo frontoi inguruan. Antolatzailea: Gure Esku.
- **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabal jate-txean.

02 igandea

- **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabal jate-txean.

Pentsamendu kritikoa hizpide izango dute Elhuyar Solasaldietan

Agustin Arrieta Urtizberea EHUKo filosofia irakasleak pentsamendu kritikoa izango du hizpide apirilaren 28ko solasaldian.

Egungo gizartearen eraldaketa-prozesu azkar eta etengabe jasotzen dugun gehiegizko informazioa aztertzeko pentsamendu kritikoa garatzeko beharraz ariko da. Pentsamendu kritikoa lagunduta, informazio partzialen eta interesatuen inguruan eta ebidentzietan oinarritutako informazioa eraikitzeko premiaz ariko da.

Apirilak 28 asteazkena

- Solasaldia Sutegi egingo da, 18:30ean.
- "Pentsamendu kritikoa hizpide".



Agustin Arrieta Urtizberek eskainiko du apirilaren 28ko hitzaldia.

- **Hizlaria:** Agustin Arrieta Urtizberea.
- Streaming bidez jarraitu ahal izango dira usurbilkultura.eus eta zientzia.eus atarietan. Hitzaldiak doakoak izango dira, baina Sutegira bertaratzeko aurrez izena eman beharko da, indarrean daukan edukiera-mugak direla eta.

Erreferendumaren alde sinatzen

Gure Eskuk erreferendumaren aldeko sinadura bilketa masiboa bideratzen segitzen du herriz herri; Usurbilgo lan taldeak asteburuetan frontoi inguruan jartzen duen postuan. Udaberrian zehar hainbat larunbat edota igandeetan aurkituko dituzue sinadurak biltzen nahiz

kamisetak saltzen. Erreferendumari babesa emateko beste bide bat baduzue, hamaikagara.eus atariaren bidez.

Maiatzak 1 larunbata

- 12:00etatik 14:00etara.
- Usurbilgo frontoi inguruan.

Datozenak

Zinea, antzerkia eta musika, Jexux Artze Kultur Elkartearen eskutik 'Ane' filma

- Maiatzak 7 ostirala, 19:00 Sutegin.
- Zuzendaria: David Pérez Sañudo.
- Aktoreak: Patricia López Arnaiz, Mikel Losada eta Jone Laspiur.
- Sarrerak: 5 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.

'Konpromisoa' antzezlan

- Maiatzak 8 larunbata, 19:00 Sutegin.
- Zuzendaria: Begoña Bilbao.
- Aktoreak: Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxaga.
- Sarrerak: 10 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.

Basabi eta Kimu taldeen kontzertua

- Maiatzak 15 larunbata, 19:00 Sutegin.
- Sarrerak: 10 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.



Patricia Lopez Arnaizek emakumezko aktore onenaren saria eskuratu zuen Goya sarietan, Ane filmarengatik. Eta Jone Laspiurrek, aktore berri onenarena.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATEXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

GAR

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

628 45 78 39

reformasmonroy@hotmail.es

TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

%100 bertako sagarra

**OSTIRAL, LARUNBAT
ETA IGANDETAN IREKITA
(ERRESERBAREKIN)
osasun neurri guztiekin**

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA



Betiko Sagardoa



Sagar gazi eta gozoko
aurreneko zuku tantak
jaitsi dira.

TXOTX 2020 Zabalik!

SAIZAR
Sagardotegia

**ABANGOARDIA
& TRADIZIOA**

Kale-zahar, 39 - 20170 USURBIL (Gipuzkoa) - T 943 373 995 - sidreria@sidrassaizar.com
www.sidrassaizar.com



URDAIRA

Sagardotegia

**OSTEGUN, OSTIRAL,
LARUNBAT ETA
IGANDETAN irekita**

osasun neurri guztiekin
ERRESERBA EZAZU!

Aginaga 943 37 26 91



SAGARDOTEGIA
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA

ASTELEHENETAN ITXITA

osasun neurri guztiekin

943 36 67 10

Sagardotegia



info@aginagasagardotegia.com www.aginagasagardotegia.com

OSASUN GIDA 2021



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente parea doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urrunekeo lenteetan

2. lente parea doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopaticoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen
salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu
tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kimma

MASAJE LEKUA

· Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirringulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

Sustraitu osasuna oinetatik